

GAZTELUGATXE DONIENERA JOATEKO PROMESA-I

Anton Erkorekak Bermeon 1972an bildutako kondaira zaharra

Andra lagun bik elkarrekin Gaztelugatxe Donienera joateko promesa egin zuten. Baina ezin izan zuten joan eta bi horietako bat hil egin zen.

Bizirik zegoen emakume hau bere gizonari saskia portura eramane zion gau baten, etxera bueltan zetorrela, eskilarak igotzen ari zela, hildako neska-laguna aurkitu zuen eta ondokoa esan:

- Ez ikaratu! Badakizu Gaztelugatxe Donienera joateko promesa egin genuela, baina hil egin naizenez eta zerura joateko egin genuen promesa zuk betetzeko zain nago.

- Beno!

Besteak baietz esan zion, baina ez zen joan hurrengo egunean. Hurrengo egunean berriro agertu zitzaion, eta gero gizonari esan zion:

- Hau gertatu zait eta Gaztelugatxe Donienera joaten lagundu behar didazu, emakume hori behin eta berriro agertzen baitzait eta ez bainau bakean uzten.

Horrela Donienera joan ziren hildakoari laguntzen. Bidean, gizona, berarekin joan zen gizonak, hildakoaren arima ikusteko asmoarekin korrikan zihoan ikustera eta nahi gabe hildako andreari gona zapaldu egin zion. Arimak esan zion gizonaren emazteari:

- E, fulana! Esaiozu zure gizonari atzerago, aurrerago edo alborago joateko gona zapaltzen baitit.

Horrela heldu ziren Gaztelugatxe Donienera eta arrosarioa otoitz egiten zuten bitartean, esan zien:

– Beno, banoa orain.

Eta bestea agurtzen zuenean esan zion:

– Emadazu eskua, mesedez, emadazu eskua.

Eta hildakoak esan zion:

- Ez dizut eskua emango, erre egingo nizuke eta.

Eta esan zion:

- Emadazu zapia.

Zapia eman zion eta bertan utzi zuen bere agurra erreniko marka utziz. Purgatorioan erretzen ari direnez, zapia eman zion eta bertan utzi zion, erreniko markarekin utzi zion.

Anton Erkoreka
Etnografía de Bermeo, 3
Leyendas, cuentos y supersticiones
Doniene Bilduma
Bilbao, 2000